

HERRITARREN PARTE-HARTZEA.

AUZO-BILERA: Behe aldea.

Eguna: 2015/11/19

SAILA:

LABURPENA.

Alkatetza	Herri barruan abiadura 30 km/h-ra murriztea eskatu du.
Alkatetza	Auzoko bileren aktak, bilera egin eta denbora gutxi barru udal web-gunean jartzea eskatu du, esandako gauzen jarraipena egin ahal izateko.
Alkatetza	Auzoko bizilagun batek kexa hau adierazi du: aktak beranduegi jartzen direla udal web-gunean.
Alkatetza	Informazioa eskatu du txakurrentzat leku bereziak egokitzeari buruz.
Alkatetza	"Dias Das Letras"eko musika-emanaldien dezibelio-maila mugatzea eskatu du.
Alkatetza	Barrena kalean jarri ziren Gabonetako argiak gutxi eta urri izan zirela dio.
Hirigintza	Autobide-azpiak ixtea eskatu du arazorik ez izateko.
Hirigintza	Txontako etxebizitzak birgaitzea erreklamatu du.
Hirigintza	Txontako emakume batek auzo hartako etxebizitzak hobetzeko aukeraren inguruko informazioa ematea eskatu du. Esan du eraikin gehienek 50 urte baino gehiago dauzkatela eta auzoko bizilagunei laguntzak bideratzea eskatu du, etxeak berrizteko.
Obrak	Auzoko emakume bat kexatu egin da Txontan dauden mugikortasun eta irisgarritasun arazoengatik. Arane eta Txonta kaleak elkartzea eskatu du Galizia etorbidetik.
Obrak	Barrena kaleko 36ko emakume batek dio bere gizonaren gorpildun aulkiarekin arazoak dituela etxeke pegorara sartzeko. Irisgarritasuna hobetzea eskatu du.
Obrak	Barrena kaleko emakume batek hauxe eskatu du: LIDL-tik tren-geltokiaren parkeraino doan pasabidea birmoldatzea edo aldatzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA.

AUZO-BILERA: Behe aldea.

Eguna: 2015/11/19

SAILA:

LABURPENA.

Obrak	Bidebarrieta, Arane eta Arikitzako bidegurutzea hobetzea eskatu du.
Obrak	Saratsuegiko emakume batek arrapala mekanikoak eraikitzea eskatu du alde horretara joateko.
Obrak	Eskudelaren oinarritik lurrera distantzia handia dagoelako kexatu da.
Obrak	Kexatu egin da Karmeneko parkean egin diren obrek sortzen dituzten ondorioez. Esaten du eskailerak oraindik ura botatzen segitzen dutela eta baldosak solte daudela.
Alkatetza	Urkizu kaleko 13an dagoen dorrean bizi den emakume batek informazioa eskatu du Villalbaren lokal zaharrean zabalduko den establezimendu berriari buruz.
Zerbitzuak	Kexa hau sartu du: Larrañaga y Elorza enpresa gainean dagoen terrazak eltxo asko ekartzen dituela udan, urik ez dagoelako. Hura garbitzea eskatu du.
Udaltzaingoa	Autobide-azpiak txakur kakaz beteta daudela salatu du.
Udaltzaingoa	Gazteen lokalek Urkizuko dorreetan bizi diren pertsonei eragozpen asko sortzen diela-eta kexatu egin da.
Udaltzaingoa	Emakume batek Arrateko autobusak bueltan izaten dituen geralekuak ganoraz arautzea eskatu du. Itxura denez auto-gidari batzuk ez dira jaisten Zubi-gaineko geralekuraino, Urkizuraino.
Udaltzaingoa	Auzoko gizonezko batek arauak betetzea eta txarto aparkatzen dutenak zigortzea eskatu du, kasu honetan, Asuaerrekan.
Udaltzaingoa	Autobusek asteburuetan egiten dituzten paraden informazioa eskatu du, baita San Agustin kalean bira egitea ere.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA.

AUZO-BILERA: Behe aldea.

Eguna: 2015/11/19

SAILA:

LABURPENA.

Udaltzaingoa	Gizonezko batek gazteen lokalei buruzko Ordenantza aplikatzea eskatu du Urkizuko dorreetan daudenek sortzen dituzten eragozpenengatik.
Udaltzaingoa	Gizonezko batek motorrek ateratzen duten zarata kontrolatzea eskatu du.
Udaltzaingoa	Urkizuko dorreetako 9an bizi den gizonezko bat kexatu egin da gazteen lokala egoera txarrean dagoelako. Esaten du zaborra kanpora atera eta hantxe bertan uzten dutela. Alde hura gehiago eta hobeto garbitzea eta lokalen Ordenantza aplikatzea eskatu du.
Udaltzaingoa	Kexatu egin da umeek futbolean jokatzen dutelako Karmen kaleko parkean.
Zerbitzuak	Urkizuko dorretako bizilagun batek salatu du euri-urak jasotzeko zorrotenak egoera txarrean daudela. Kexatu egin da ez delako horren mantentze-lanik egiten.
Zerbitzuak	Saratsuegin eta beste leku batzuetan gaikako bilketaren edukiontzi gehiago jartzea eskatu du.
Zerbitzuak	Saratsuegiko (Sautsi) espaloiak garbitzea eskatu du.
Zerbitzuak	Argiak, Txontaren erdialdean, 17aren eta 15aren artean, beste aldean daudela jarrita salatu du.
Zerbitzuak	Txontako 13. eta 15. zenbakietara ematen duten eskaileretan argi bat falta dela-eta, kexatu egin da.
Zerbitzuak	Karmeneko parkearen ostean dagoen lorategia hobeto zaintzea eskatu du.
Zerbitzuak	Salatu du Barrena kaleko 2tik 16ra zenbakiko eraikinen osteko arbolak oso altuak direla, eta sastrakak eta sasiak kentzea eskatu du.
Zerbitzuak	Urkizuko emakume batek 6. etxearen ostean dauden sasiak eta sastrakak kentzea eskatu du.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA.

AUZO-BILERA: Behe aldea.

Eguna: 2015/11/19

SAILA:

LABURPENA.

Zerbitzuak	Urkizuko emakume batek edukiontzien ondoan uzten diren altzariak eta tresnak garbitzea eta erretiratzea eskatu du; baita horretarako jarritako egunetan ez diren egunetan uzten direnak ere.
Zerbitzuak	Kexatu egin da hondakin organikoen edukiontziak oso deserosoak direlako erabiltzeko orduan. Esan du jendeak arazoak izaten dituela zabaltzeko, batik bat, pertsona nagusiek, edukiontzia zabaltzeko ateak pisu handia duelako eta oso altu geratzen delako.
Zerbitzuak	Urkizuko dorreetan bizi den emakume batek salatu du leku haren garbiketa negargarria dela.
Zerbitzuak	Herriko jendea kontzientziaztea eskatu du hondakin organikoen edukiontzia gehiago erabil dezan.
Zerbitzuak	Eskatu du erdialdeko argitasuna eta Barrena kalekoa konparatzea, Barrenakoa askoz motelagoa delako.
Zerbitzuak	Urkizuko dorreetako gizonezko bat kexatu egin da eta hauxe esan du: Udalak egindako azkenengo birmoldaketatik hona ura sartzen dela garajeetan.
Zerbitzuak	Hustubideak garbitzea eskatu du. Emakume batek dio herriko estolda-sare guztia dagoela trabatuta.
Zerbitzuak	Informazioa eskatu du hiri-hondakinen gaikako bilketari buruz.
Zerbitzuak	Azitainera eta hango elizara ematen duten espaloiak konpontzea eskatu du. Esaten du aulki gurpildunetan daudenak arazoak izaten dituztela handik ibiltzeko.
Zerbitzuak	Saihesbideko setoak edo palaxuak mozten direnean altura jakin batean lagatzea eskatu du, horrela autoen zarata leuntzen delako.
Zerbitzuak	Kexatu egin da eta esan du Saratsuegi (Sautsi) auzoko iturriak ez duela ura ondo jasotzen: hotz egiten duen egunetan, iturritik behera jausten den ura izoztu eta jendeak irrist egiten du.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA.

AUZO-BILERA: Behe aldea.

Eguna: 2015/11/19

SAILA:

LABURPENA.

Zerbitzuak

Iparragirrerako bidearen arrapalan eskudela jartzea eskatu du, autobidearen zubi azpian, alegia.

Zerbitzuak

Eguzkibegi kaleko 2an dauden ur-beltzak ezabatzea eskatu du.

Zerbitzuak

Saratsuegi (Sautsi) auzoan bizi den emakume batek errepide ondoko erreka garbitzea eskatu du. Esaten du azkenean hondakindegia bat dela eta hura tapatu egin behar dela.

Zerbitzuak

Saratsuegi auzoan bizi den emakume batek falta den babes-bazter zaita jartzea eskatu du.